

# INTERNAZIONALISMO

Gu internacionalistak gara denok. Gizonak garelako: eta badakizu estoi-koak zer esaten zuen, gizonarekiko gu-zia doakigula. Kristau tradizioan he-ziak garelako: eta kristatutasuna izan da internazionalismo teoria diztirante- netako bat, "ekumene" eta "katoliko" bezalako hitzak ekarri dizkiguna men- debalera. Internazionalista gara, nazio ar- tean bizitzea eta ibiltzea tokatu zaigula- ko ere: eta nazio guzitan aurkitzen duzu gizona gizon. Zanpatu eta persegitu gu- zien solidaretasuna sentitzen dugulako ere, internazionalista gara: eta lotsatu egiten gara, 200 preso euskaldunek hala sofrierazten digulako, bana 30 mila in- donesioz preokupatzeko ez dugulako astirik. Internazionalista gara, istripu ba- tetan lantegian hil zitzaigun aitari eta hemen dabilen andaluz honi, makinak ez dielako galdetzen, zein naziotatik da- tozen. Internazionalista gara, ez izatea ikaragarritzko bekatu delako ere egungo ideien mendean. Internazionalista gara, nazionalismoari higuin-higuin diogulako (eta, horra, nazionalista izan beharrean aurkitzen gara geu...). Benetan interna- zionalista gara.

Internazionalista gara eta, horregatixe, bildurra eta errezeloa diogu internazio- nalismo ideologia orori. Arrazoi askoga- tik. Baina, batik-bat, internazionalismo ideologiak, historian, beti inperialismoaz koinziditu duelako. Beraz, Konkista De- retxoaren kamuflaje hutsa izan delako.

Alesander Haundiak bere erara for- mulatzen zuen internazionalismo ideo- logia: Eguzkiak gizon guzien gainean berdin iruten du; beraz, gizon guziak berdinak dira Eguzkiaren pean; beraz, gizon guziek bateratu egin behar dute. Gizon guziek legeria bat eta berdina be- har dute (Eguzkia justiziaren sinbolo zen), eta abar. Eta Alesander Haundia herriak konkistazera eta batzera dedi- katu zen: guzien Autoritate bakarra izate- ra, eta guziei lege bakarra ezartzera, eta hizkuntza bakarra irakastera. Eta mun- dua "ekumene" bat eta grekoa hizkun- tza "Koiné" bihurtu zituen. Erromak jarraitu zion.

Bigarren internazionalismo ideologia haundia kristautasuna izan da. Besteak beste, Karlomagnobaliatu da ideologia honetaz. Esaten zuen: Jaungoikoak gi- zon guzien alde utzi du hiltzera bere Semea; beraz, Jaungoikoarentzat gi- zonen artean hainbeste diferentzia egitea... Eta osatzen zuen San Paulo: ez dago barbaro eta grekorik, ez dago franko eta sajoinik, euskaldun eta ez dakit zeri! Denak berdinak eta bat dira Jainkoaren aurrean. Eta Karlomagnobere bizi gu-

zian gerra egitera eta herriak konkista- tzeraz dedikatu zen, herri guziak Jain- koaren aurrean batzeko. Purtugesek eta espainolek jarraitu zioten.

Hirugarren internazionalismo haun- dia eta inperialismo haundia Napoleo- nena da. Dakizunez, Iraultza Frantzeza gizon guzien berdintasunaren izenean egin zen. Beraz, Napoleon gizon guziak berdin bihurtzera dedikatu zen. Konkis- tatzen zuen herri orotan Kodigo Napo- leonikoa ezartzen zuen. Espainitik Erru- siaraino, dena okupatu zuen, gizon gu- zien berdintasunaren aitzakiaz. Eta ez zuen lortu mundu guzia berdintzea, be- ra berdindu zutelako Santa Elenan. Bes- tela, Napoleonengatik, aspaldi ginen gi- zon guziak berdinak, legeria berdinez, hizkuntza bat eta bakarrez, eta abar. Goian ahaztu egin dut esatea: Karlo- magnok ere, internazionalista guziek be- zala, ez zuen hizkuntz-internazionalis- moa ahaztu. Horrela sortu zen latinaren "Errenazimendu karolinoa". Haren eraginez utzi zen, esate baterako, idaz- dera bisigotikoa Espainian, erromatar- karolinoa hartzeko.

Internazionalismo ideologiak, mun- dua Estatu erakunde batez, administraz- go batez, Autoritate batez, hizkuntza batez, legeria batez, kultur aparato ba- tez, pentsaera bakar batez (erlijio, ideo- logia), uniformatzeko edeologiak izan bait dira. Beren arteko itxura diferentzia guzien azpian beti estruktura berbera duten denek.

Azkeneko internazionalismo ideo- logia haundia proletarioa edo sobietarra da. Txekoslovakia inbaditzeko erbitu duena, eta abar. XX-gn Kongresoan de- klaratu zuena; "La piedra de toque del internacionalismo proletario es la acti- tud hacia la Unión Soviética". Carrillok argitzen zuena: "En la práctica este le- ma equivalía al apoyo incondicional de las iniciativas de la dirección soviética". Internazionalismo ideologia honek ere mundu bat eta bakarra, klase bat eta ba- karra, hizkuntza bat eta bakarra, eta abar, esijitzen zuen. Nazio interesak uz- teko eta abar.

Konforme, internazionalismoa hori baino gehiago da. Horregatik interna- zionalista gara. Baina alderdi hori ere badago eta internazionalismo ideologi- ek eszeptizismo haundi bat sortzen badigu- te, oso harritzeko gauzarik apenas irudi- tzen zaigu. Idien historiako ideia polit- guziak bezala, handiek handikara eta tti- piek ahalara erabili ohi dute ideia polit- ere.●

JOXE AZURMENDI

# HUMANISMOAREN ALDE

Elixabetehe Mendizabal-ek ZERUKO ARGIAren 727. zenbakian "Sexuaren Gar- rasia" izenburuz idazten duenak badu mamirik. Hona hemen pasarte batzu:

"Beti, eta jende gehienak gainera (ni ere tartean sartua) politikaz frustratuta gaude.

Pertsona eta sexual mailan arazo haundiak dauzkagu, honekin batera, prejuizio izugarritzkoak, eta hau zergai- tik? Gutxitan hontaz pentsatzen geldi- tu gara. Bete hutsune hauek bete beha- rrean, politika mailan nahastun gara, eta gure beharrak utzi egiten ditugu al- de batera.

Neretzat sexual beharrak oso garrantzi- suak dira, eta gainera sexual arazoa iraultza baten konponente bat da" (ai- patu alea, 2 or.).

Lehenik, bejondeiola lerro horik idatzi dituenari. Hainbeste politika merke egiten den herri honetan, gisa honetako egia arunt eta marduala plazaratzea guztiz osasungarria da.

Izan ere, badirudi Euskal Herrian ez dagoela problema bat baizik. Eta horrela ustekabean eta borondate onenez, gizona irentzen, txikietatzen eta birrintzena ari garela uste dut. Gizakiak alderdi asko di- tu izan. Gu, ordea, ugaritasun eder hori alde batera utziz, beti puntu berean gabil- tza mailuka. Gizatasunaren zentzua apur bat duenarentzat aspergarri ere gertatzen da beti lelo berdina entzuten egon beha- rra. Areago giza pertsonaren alderdi eta arazo nagusi batzu ukitu ere egiten ez di- renean. Horixe da, dudarik gabe, gure he- rriko aldizkarien kasua; kasu grabea eta salatu beharrekoa, noski.

Iraultza egin beharrekoa izan da, baina ez ditzagula zentzua eta umorea gal. Bestela, gureak egin du. Azken fi- nean, zertarako litzateke iraultza oroko- rra, bienbitartean geure burua gal bagene- za?

Marcuse-ren "Eros eta Zibilizazioa" irakurtzea ondo baino hobeto letorkigui- ke, ene ustez, Orotat Freud-en zenbait obra.

Euskal Herria herri zapaldua da, baina ez politika mailan bakarrik. Euskal Herria oso herri repirmitua delakoan nago eta se- xu mailan oso bereziki. Horregatik, hain zuzen, beldur izateakoa da politika mail- lan planteatzen diren arazo asko eta asko ez ote diren beste alderdi batzutatik begi- ratu beharrekoak.

Euskaldunok hain sanoak eta "jato- rrak" izaki, badugu hor nonbait hutsune larriren bat gizatasun mailan. Izan ere,